



**Espediente zk./Nº expediente:** 2025OKMA0002  
**Gaia/Asunto:** Kontratazio Mahaia - 2025/01/23 - Mesa de Contratación

MC250123

## AKTA / ACTA

KONTRATAZIO MAHAIA MESA DE CONTRATACION					
<b>Bilkura mota</b> Tipo de sesión	<b>Ohikoa</b> Ordinaria	X	<b>Ezohikoa</b> Extraordinaria		<b>Presakoa</b> Urgente
<b>Bilera zenbakia</b> Nº de sesión	2/25(a)		<b>Eguna</b> Día	2025-01-23	
<b>Deia</b> Convocatoria	1	<b>Hasiera ordua</b> Hora de inicio	08:30h	<b>Bukaera ordua</b> Hora de finalización	08:35h
<b>Tokia</b> Lugar	<b>Udaletxeko bilera gela</b> / Sala de reuniones del Ayuntamiento				

## BERTARATU DIRA / ASISTENTES

- Alazne Korta Zulaika (Batzordeburua / Presidenta)
- Leire Etxezurieta (Kontuhartzaile ordea / Interventora por suplencia)
- Marta Nicolás Goti (Ondare eta Kontratazioko Aholkulari Juridikoa / Asesora Jurídica de Contratación y Patrimonio)
- Maite Sáez (Idazkaria / Secretaria)

Era berean, telematikoki bertaratzen da:

Asimismo asiste de forma telemática:

- Ainhoa Esnaola Zubeldia (Idazkari Orokorra / Secretaria General)
- Uxue Arostegi (Hiri Mantenimenduko Arduraduna / Responsable de Mantenimiento Urbano)
- Laura Asensio (Hiri Mantenimenduko Teknikaria / Técnica de Mantenimiento Urbano)

Bilkuran daude ere:

Asisten a esta sesión:

- Antonio Vicente (PP/PP)
- Eli Murua (EAJ/PNV)
- Almudena De la Torre (PSE-EE/PSOE) (Telematikoki- telemáticamente)



### GORABEHERARIK / INCIDENCIAS

Ez da gertatu

No hay.

-----

Jarraian, quoruma zegoenez, partaideak gai-zerrendako gaiak aztertzen hasi dira.

-----

Seguidamente, y dado que existe quorum, los asistentes proceden a tratar los temas del orden del día.

### ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK

Kontratazio Mahaiko Lehendakariak adierazi du gai-zerrendako 1. eta 2. puntuak (2024OZER0023 eta 2024OZER0024) mahai gainean geratzen direla, Europar Batasunak finantzaturako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren – NextGenerationEU – esparruan sartutako bi kontratazio-espeditente baitira.

### COMENTARIOS Y ACUERDOS

La Presidenta de la Mesa de Contratación señala que los puntos 1 y 2 del orden del día (2024OZER0023 y 2024OZER0024) se quedan sobre la mesa, ya que se trata de dos expedientes de contratación incluidos en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia - Financiado por la Unión Europea – NextGenerationEU.

Espeditente horietan, artxibo elektronikoak ireki aurretik, prezetiboa da interes-gatazken azterketa, Zerga Agentziaren MINERVA aplikazioaren bidez. Txosten hori hori eskatu da, baina oraindik ez da igorri.

En estos expedientes, previamente a la apertura de los archivos electrónicos es preceptivo el análisis de conflicto de intereses mediante la aplicación MINERVA, de la Agencia Tributaria, el cual se ha solicitado pero aún no ha sido emitido.

Horregatik, bi gai horiek Mahaiaren gainean geratzea eta, hala badagokio, Kontratazio Mahaiaren hurrengo bilkurara ekartzea proposatu du.

Por ello, propone que ambos temas se queden sobre la Mesa y en su caso se traigan a la próxima sesión de la Mesa de Contratación.

Kontratazio Mahaiak hala erabaki du.

La Mesa de Contratación así lo acuerda.

Jarraian, gai-zerrendako 3. eta 4. puntuak jorratu dira.

Seguidamente se procede a tratar los puntos 3 y 4 del orden del día.



**3.- Proposamena: “Mikel Odriozola estadioko eta honako koadroetako argiteria publikoko luminariak hornitzea eta muntatzea: C4 Cristóbal Gamón, C5 Versailles, C20 Biteri, C22 Martin Etxeberria, C23 Musika Plaza, C24 Ikutza Kortsarioa, C29 Ganbo, C31 Pontika, C41 Bizente Elizegi y C43 Niessen” adjudikatzea. (2024OHOR0008)**

Presidenteak proposamena irakurri ostean, batzordekideek, aho batez, ondoko

**Erabakia hartu dute:**

1.- Olatz Ugartemendia Zuriarrain Andereari, “LEYCOLAN, S.A.L.”-ren ordezkari gisa (IFK: A-75141275), PROPOSATZEA “Mikel Odriozola estadioko eta honako koadroetako argiteria publikoko luminariak hornitzea eta muntatzea: C4 Cristóbal Gamón, C5 Versailles, C20 Biteri, C22 Martin Etxeberria, C23 Musika Plaza, C24 Ikutza Kortsarioa, C29 Ganbo, C31 Pontika, C41 Bizente Elizegi y C43 Niessen” gauzatzeko izeneko kontratuaren 3. LOTEaren adjudikazio-hartzaile izatea, 70.655,59 euroko (%21 BEZa barne) prezioarekin, egikaritzeko berrogeita sei (46) egun naturaleko guztizko epearekin, eta 5 egun natural luminariak instalatzeko eta bost (5) urteko berme epearekin, betiere lizitazioa aratu duten Baldintza Administratibo Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agirietan jasotakoaren arabera, eta era berean, espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzaren arabera.

2.- ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari hamar (10) laneguneko epean, jasotzen duenetik kontatzen hasita, lizitazioak Baldintza Administratibo Partikularren Agiriaren 33.2. klausulan eskatzen duen dokumentazioa aurkez dezan, hala nola 2.919,65€-ko behin betiko bermea.

**3.- Propuesta: Adjudicación del “Suministro y montaje de luminarias del estadio Mikel Odriozola y del alumbrado público de los siguientes cuadros: C4 Cristóbal Gamón, C5 Versailles, C20 Biteri, C22 Martin Etxeberria, C23 Musika Plaza, C24 Ikutza Kortsarioa, C29 Ganbo, C31 Pontika, C41 Bizente Elizegi y C43 Niessen”. (2024OHOR0008)**

Tras la lectura de la propuesta por la Presidenta se adopta por unanimidad, el siguiente:

**Acuerdo:**

1º.- SE PROPONGA a Dª Olatz Ugartemendia Zuriarrain, en representación de “LEYCOLAN, S.A.L.” (CIF: A-75141275), como adjudicatario del LOTE 3 del contrato para la realización del “Suministro y montaje de luminarias del estadio Mikel Odriozola y del alumbrado público de los siguientes cuadros: C4 Cristóbal Gamón, C5 Versailles, C20 Biteri, C22 Martin Etxeberria, C23 Musika Plaza, C24 Ikutza Kortsarioa, C29 Ganbo, C31 Pontika, C41 Bizente Elizegi y C43 Niessen”, por un precio de 70.655,59 euros (IVA 21% incluido), un plazo total de ejecución de cuarenta y seis (46) días naturales, con 5 días naturales para la instalación de luminarias y un plazo de garantía de cinco (5) años, de conformidad con los Pliegos de Cláusulas Administrativas Particulares y Pliego de Prescripciones Técnicas que han regido la licitación, así como a la oferta del adjudicatario que consta en el expediente.

2.- SE REQUIERA al interesado para en el plazo de diez (10) días hábiles, a contar desde la recepción del mismo, aporte la documentación que se señala en la cláusula 33.2 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como la garantía definitiva de 2.919,65€.



**4.- Alkatetzaren Ebazpenen berri ematea.**

Mahaia jakinaren gainean geratu da.

**4.- Dar cuenta de las Resoluciones de la Alcaldesa.**

La Mesa queda enterada.

Errenterian, sinadura elektronikoaren egunean

BATZORDEBURUA,

Stua/Fdo.: Alazne Korta

IDAZKARIA,

Stua/Fdo.: Maite Sáez.



## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

**Titulua / Título:**

2025OKMA0002-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA)